

"EXPOCHESS, XAKEAREN ZEHARKAKO KULTURA" I. PINTURA LEHIAKETA

EXPOCHESS X.E. kultur elkarteak sortu du, hurrengo oinarrien arabera:

1. Nazionalitate guztietako artistek parte hartu ahal izango dute. Gaia XAKEA izango da eta teknika libre erabili ahal izango dute. Formatuak gehienez hurrengo neurriak izango ditu: 1,70cm x 1,70cm; eta markoak, 3 zentimetro gehienez.
2. Artistek obra bakarra aurkeztu ahal izango dute. Lanak alde zuzenetik aukeratuko dira eta horretarako parte hartzaileek http://www.expochess.org/eus/pages/expochess_2015/Lakua/lehiaketa/2015_lehiaketa.php webgunera formatu digitaleko argazki bana bidali beharko dute (jpg, ipg, tiff..., bereizmen handikoak eta 8 mb-koak gehienez), eta ez jatorrizko lana (fisikoa). Jatorrizko lan hori bakarrik eskatu baitzaie epaimahaiak hautatzen baditu, erakusketan eta sariketan parte har dezaten.
3. Artistek curriculumaz eta artelanaren fitxa teknikoaz gain (izenburua, neurriak eta teknika), konposizioaren marko kontzeptuala azaltzeko testua ere bidali beharko dute. Agiriok uztailaren 10a baino lehen (aurreikusitako data) hurrengo helbidera bidali beharko dituzte: info@expochess.org, eta gaian "EXPOCHESS LAKUA" Nazioarteko I. Pintura Lehiaketa jarri behar dute.
4. Artista guztiei uztailaren 15a baino lehen webgunearen bidez jakinaraziko zaie epaimahaiak bere lana hautatu duen ala ez; hautatutakoei, ordea, zuzenean jakinaraziko zaie. Aukeratutako lanak artistek beraiek entregatu beharko dituzte zuzenean; edo bestela, garraio-agentzia baten bidez bidali, erakusketarako behar bezala muntatuta, hurrengo helbidera eta datetan: **GRAN HOTEL LAKUA ***** hotela, Tarragona kalea 8 - 01010 Gasteiz, Espainia, 10:00etatik 14:00etara, uztailaren 15etik 21era bitartean**. Parte hartzaileek bidaltze- eta itzultze-gastuak bere gain hartuko dituzte; eta antolatzaileek ez dute artelanek izan litzaketen kalteen gaineko erantzukizunik izango.
5. Egile bakoitzeko artelan bakarra onartuko da. Halaber, ez da onartuko beste txapelketa edo lehiaketa batean saririk jaso duen artelanik.
6. Epaimahaiak hautatutako artelanekin **GRAN HOTEL LAKUA** hotelean erakusketa egingo da, 2015eko uztailaren 23tik 16ra bitartean. Epaimahaiaren epaitza apelaezina izango eta erakusketa zabaltzen denean jakinaraziko da..
7. Sari bakarra ezarri da, **1200** eurokoa (sari horri legez ezarritako atxikipena aplikatuko zaio). Epaimahaiak, egoki irizten badio, ohorezko aipamen bat edo batzuk eman ditzake (diru-hornidurarik gabekoak). Saritutako lanaren erreprodukzioa hurrengo urteko oinarrien aurrealdean agertu ahal izango da; atzealdean, berriz, ohorezko aipamena merezi izan duten horiek erreproduzituko dira*. Saritutako artelanaren jabetza EXPOCHESS Xake Elkartearen izeneko kultur elkartearen esku geratuko da.

Argibide gehiago eta oinarriak hemen ikus daitezke: <http://www.expochess.org>

* Antolatzaileak salbuetsita geratuko dira konpromiso hori betetzetik, jarduera hori egin ezean.